



BARREN

TOKIKOM



Harria eten da

7 ANON
KIA



10
EGUN
KIA

ESKAITZA
HOBEEZINAK
Otsailaren
8tik 19ra



The Power to Surprise

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1
Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

Tel.: 943 70 70 33

Aprobetxatu 10 egun KIA. Ezagutu teknologiarik berrienak prezio hobeezinean gamako aukera guztietan.

Kontsumo konbinatua (l/100 km): 1,3-7,6. CO₂ (g/km) isuririk: 29-177.

Gabiltza eskaintzaren baldintzak: KIAko kontuzioararen sarria: www.kia.com/autogamari. Eskaintza baliozko etorraren 8tik 19ra arte. * Kontuziatu KIAre berme eskiltutuan.

San Bartolome,¹

E L G O I B A R

2 eta 3 logelako
4 ETXEBIZITZA
trastelekuarekin
eta lokal
komertziala

**ERAIKUNTZA
BERRIA**

Sustatzailea

ISGAInmuebles s.a.

Kudeatzailea

gesdas
gestión de
promociones
de viviendas

Finanziatzailea

LABORAL
kutxa

Saltzailea

A Arbeloa
inmobiliaria

Informazioa eta Salmentak

T. 688 72 41 22



Zorionak zuei

Zorion-agurren atala berezia izan da beti BARRENEN. Irakurleok ere hala aitortu diguzue behin baino gehiagotan, estimuan duzuela. Batek baino gehiagok esan diguzue atzetik aurrera hasten duzuela sarri aldizkaria, aste horretako zorionduak zeintzuk diren ikusteko irrikaz. Bestelako funtzioak ere bete ditu, baina, atal honek. Izan ere, askok esan diguzue guraso izateko zinetenean zorion-agurren atalean jarduten zinetela izen bila ere. Zoriona banatu dugu, eta zorionekoak gara zuek bezalako irakurleak izateagatik. Hazten ikusi zaituztegu, eta zer esanik ez zuek, argazkikook. Zuen aitona Luis Mari Iriondori esker, etxeko ere bazaituztegu.

Luis Mari Iriondo eta bere bost bilobak ekarri ditugu gaur oroitzapenen orrialde honetara: Itsaso Egaña (26), Urko Iriondo (17), Izaro Iriondo (13), Beñat Iriondo (10) eta Sare Iriondo (8). Lehenengo aldia da BARRENEN denak batera agertzen direla, baina bestela ez dira agerkari honetan agertu gabeak. Zorion-agurren atalean, behintzat, ezagunak ditugu oso. Hantxe ikusi ditugu hazten ere argazkiko neska-

tilok. Izan ere, jaio zirenez geroztik, urtero-urtero zoriondu ditu Luis Mari aitona orainsu arte, eta karpeta batean bildu ditu gero urtez urteko haien zorion-agurrak, "txukun-txukun markatuta eta sailkatuta". Memoria lausotzen hasia zaio aitonari, baina gazteek ondo gogoan dute aitona haiengandik egindakoa. Illusio handia egiten ziela aitortu dute guztiek. "Bagenekien aittita beti gogoratu zela

gure urtebetetze egunean. Paga ere beti ematen digu", dio Beñatek, denetan hiztunak. Itsaso da taldeko nagusia eta bera da horrenbestez orrialde hauetan gehien agertu dena. "Beti egin digu illusio berezia. Jari behar zuen argazkia gurekin hitzartzen zuen beti, eta testua berak aukeratzen zuen", azaldu digu. Gazteek eurek ere ekarri dute aitona zorion-agurren atalera noizbait. 2009ko maiatzaren 25eko zenbakian behintzat hantxe topatu

dugu Luis Mari Iriondo gaztea, ezkonberritan, emaztearekin batera.

Urrezko ezteiak bete zituzten 2009an eta testu honekin zoriondu zituzten etxekoek: "Zorionak urrezko ezteiak horren osasuntsu ospatuko dituzuelako. Egun ederra pasa!".

Gaur, euren esker ona agertu diote berriro aitonari eta apirilaren 24aren bueltako BARRENEN ere artxiboan lekua egiten hasteko esan diote, oraingoan eurek izango direlako zorionduko dutenak.

Eskerrik asko, familia, zuen zoriona BARREN garen guztiokin konpartitzeagatik eta segi dezazuela urte askoan urteak betetzen.





EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa

Askatasuna

Azkenaldian asko nabil entzuten norbere erabakitzeke askatasunaz. Baina gizakioi izaki goren sentiarazten gaituen arrazoitzeko gaitasunak badu bere tranpa, historian zehar frogatua gelditu den bezala.

Azken asteetan testuinguru ezberdinetan topatu naiz prostituzioaz hitz egiten; emakume batek askatasunez har dezaken erabakia den edo ez.

Baina, nola iristen da emakume bat askatasunez erabaki hori hartzera? Noiz onartzen du bere gorputza komertziorako objektu bezala? Askatasunez? Gorputz identitatea da osatzen dugun identitatearen lehen alderdia, ni neu naizenaren kontzientzia neure gorputzak ematen dit, besterekin berezia, azala izanik mugari. Gure gorputzarekiko lehen esperientzietan osatzen da oinarritzko konfiantza, mundua esploratzera gogotsu bultzatzen gaituena. Baina lehen erlazioetan jasotakoari ondoren genero eraikuntza erantsi behar diogu.

Neskei behin eta berriro azpimarratzen digute noiz gauden polit eta noiz

ez, eta inguruak hau azpimarratzeko moduan ulertzen dugu faktore hau garrantzitsua dela. Gainera berehala erantsiko zaizkio edertasunari mutilekiko izango dugun arrakasta edo arrakasta eza; 4 urteko neskatxa baten kasketaldian albotik pasatu zen aitona batek segituan esan zion izaera horrekin polita izan arren ez zuela inork (mutilek) aguantatuko.

Beraz, emakume batek zapia darmanean kanpotik oso erraz ikusten dugu bere inguruak eragindako errepresioaren isla dela, baina bere gorputza komertziorako objektu izatea onartzea naturalizat jotzeko prest gaude?

“Gure gorputzarekiko lehen esperientzietan osatzen da oinarritzko konfiantza, mundua esploratzera gogotsu bultzatzen gaituena”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Lehenengo Inprimategia

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldeggi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalua Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

EUSKARRA
elgoibar
KOINTEGIA

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aholkuntza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► TIROIDEAREN GAIXOTASUNAK

Aurreko astean BARRENe iritzia atalean argitaratutako artikuluari erantzun nahiko nioke, endokrinologoa naizen aldetik akats ugari ikusi baitituz. Nire eguneroko kontsultan oso ohikoak diren gaixotasunak dira bai hipotiroidismoa, hipertiroidismoa eta baita bozioa ere. Hipertiroidismoaren arrazoia ezagutzen dugu eta ez da beti autoinmunea izaten, nodulo bat edota bozio multinodular batek ere sor baitezake. Era berean, hipotiroidismoa autoinmunitateaz gain, tiroiditis (inflamazio) baten, ebakuntza eta radiazioaren ondorio ere izan daiteke. lodo gehiegi edo gutxiegi hartzeak edota zenbait botikak ere tiroidearen funtzionamenduan eragin zuzena dute.

Hau guzti hau dela-eta, BARRENi gauzatxo bat eskatu nahi nioke, Elgoibarren mediku dezente bizi gara eta gaixotasunei buruzko informazioa behar izanez gero iturri egokiak bilatzea. Ez baititugu alferrik pasatzen 6 urte medikuntza ikasten, MIR prestatzen eta 4 edo 5 urte espezialitatea lortzeko. Iturginaren lana arotzak egiten ez duen bezala, gaixota-

sunei buruz sendagileek hitz egin beharko genukeela uste dut, herritarrek informazio egokia jaso dezaten.

Nerea Egaña Zunzunegui

► 2018 UDAL AURREKONTUEN BALORAZIOA

Azaroaren 21ean onartu zituen osoko bilkurak Udal aurrekontuak, baina ia guztietan egin duten bezala, deialdia udaletxeko arkupeetan baino ez zuten argitaratu. Ez dute web orrian eta sare sozialetan jarri, Udal Gobernuaren gorripatzeko ematen dituzten berrieekin egiten duten bezala.

Ahal Dugu-Podemos saiatu da aurrekontuak aztertzen. Gure eguneroko lanagatik ezin gara udaletxera joan aurrekontuak eztabaidatu ziren udalbatzarraren akta irakurtzera, beraz azterketa Udalaren web orrian, BARRENe eta DVn argitaratu den horren gainean egin dugu.

Kontuak "kontinuistak" dira; aurreko urteetako ildo beretik osatu dituzte. Ukitu batzuk eman dizkiete herriko eta herritarren errealitatera moldatu dituzten

itxura emateko, baina fatxada besterik ez da.


Adibidez, hiritarren parte-hartzea sustatzeko 200.000€ ko partida egongo dela esan digute, baina soilik aurrekontuen %1'13a suposatzen du horrek. Gainera, ez dute zehazten parte-hartze hori zertan datzan. Parte-hartzea sustatu nahi dutela diote, baina gero parte-hartze prozesuetan emandako iritziak sekula ez dituzte aintzakotzat hartu.

Inbertsionarako, aurten 4'42 milioi egongo direla esan dute, eta 2017ko datuekin alderatua, kopurua 1,5 milioitan handitu dela nabarmendu dute, baina 2017ko inbertsioa 4'2 milioikoa izan zen, beraz, 220.000€ko aldea baino ez dago. Aita Agirre berritzeko lanek ia erdia suposatzen dute, eta gainerakoa iazkoaren kopia da.

Guzti honegatik, herritarren parte-hartzea eta Udalak berak herritarrekiko erakutsitako gardentasuna hain txikiak izanik, Udalak aurrekontuak egiteko daukan moduak eragiten digun ondoreza agertu nahiko genuke.

Elgoibar Ahal Dugu

Ongi etorri! gurean izena eman duzuen guztioi Eskerririk asko!



www.elgoibarikastola.eus

943 74 44 41


elgoibar@elgoibarikastola.eus

Biribilgune bat eta oinezkoentzako pasabide bat eraikiko dituzte Leruntxikin egiten ari diren industrialdea eta Lerungoa lotzeko



Leruntxikin eraikitzen diharduten industrialdera eta Lerungo industrialdera sartu-irtenak errazteko, biribilgune bat eraikiko dute 634 errepidean, eta obrek eragina izango dute errepide nagusiko trafikoan. Izan ere, obrek irauten duten denboran errepide nagusiko trafikoaren zati bat Lerungo industrialdetik bideratuko dute. Biribilguneaz gain, oinezkoentzako lurrazpiko pasabide bat ere egingo dute. Ondo bidean, lehen fase hori maitzerako amaitzea aurreikusten dute Udal arduradunek, eta irailerako amaituta egotea gainerako dena.

Leruntxiki urbanizatzeko lanek 2.657.540 euroko kostua dute (BEZa kanpo) eta abenduan hasi zituzten lanak. Plan partziala 2017ko urriaren amaieran onartu zuten eta 2018ko urtarrilaren 15ean, Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bilkuran, Leruntxiki-Morterika eremuko urbanizazio proiektuaren aldaketa onartu zuten lehendabizikoz. Orain, proiektua jendaurrean jarrita dute, eta otsailaren 21 arteko epea dago alegazioak aurkeztu ahal izateko. Urbanizazio proiektu honetan plan partzialesan egin diren aldaketak jaso dituzte aurrekoaren baldintza berdinak mantenduz.



Aterkiak, minbizi erauntsiaren kontra



Minbizia sufritzen duten guztiei, izan gaixo nahiz haien gertukoei, elkartasuna agertu zieten Elgoibarren hainbat lagunek astelehenean, Minbiziaren Kontrako Nazioarteko Egunean. Gipuzkoako Minbiziaren Kontrako Elkarrekin eta Udalak deituta, mosaikoa osatu zuten dozenaka lagunek, gehienak emakumeak. Minbizia dutenen beharrak azalertzeko premiaz eta gizartean kontzientzia sustatzeko beharraz ohartarazi zuten AECC elkarteak.

Orga jasotzaile berria dauka Gurutze Gorriak

Elgoibarko Gurutze Gorriak orga jasotzaile berria dauka. Ulma enpresak kostu prezioan saldu die, eta Gipuzkoako Elikagaien Bankutik ekartzen dituzten elikagaiak kudeatzeko erabiliko dute. Gurutze Gorriko presidentek azaldu duenez, orgari esker, lagun bakarrak egingo du orain lehen lauk egiten zuten lana.



Alerta-deien eta albisteen berri emateko app bat sortuko du Mendaroko Udalak

Mendaroko Udalak app bat sortuko du alerta-deien eta Udalari lotutako albisteen berri emateko. Garagartzan azken urteotan izandako uholdeen harira erabaki zuen Udalak app-a sortzea, auzo horretako bizilagunek egindako proposamen eta eskariak aintzat hartuta. Huts-hutsean alerta-deiak emateko izan beharrean, baina, beste hainbat konturen berri emateko ere baliatuko dute app hori orain, Sonia Garcia alkateak agerkari honi jakinarazi dionez.

Herrian hasita edo hastear dauden beste obra batzuen berri ere eman dute Udaletik. Batetik, esan dute, ospitale azpian eraikitzen ari diren kirolerako eta aisialdirako gune berriaren obrak bide onetik doazela, eta aurreikusitako epean amaituko dituztela, oker handirik ezean. Azken asteotako euriteek zaildu egin dituzte lanak, eta atzerapen batzuk eragin dituzte, baina maitatzaren 31rako amaitzeko moduan izango direla aurreratu dute obraren arduradunek. Padelarako kantxa, kirola egiteko dozena bat makina, kirol anitzerako kantxa, skate-parke txikia eta haurrentzako txorrot-gunea eraiki asmo dituzte, besteak beste, eta obrak 627.000 euroko aurrekontua izango du. Bestalde, Martzela Osoro plazako pretila ere konponduko dute, martxoa aldera.

Arbolaren kimatzea eta zaborren kudeaketa

Azpilgoetako erramu handia kimatzen ere aurki hasiko direla aurreratu dute. Iazko ekainaren 20an arbolaren adar handi bat ondoan aparkatuta zeuden hiru autoren gainera jausi zen, arbolak jasandako estres hidrikoagatik. Horren harira, orain arte ezer gutxi



egin ahal izan zaiola esan du Garcia, baina orain, arbolak gutxienez sufrizten duen garaia izanda, adar batzuk kimatuko dizkitela, arbolari pisua kentzeko, desoreka handia duelako. Era berean, Mendarozabalen, Kapaingo etxeraino doan aparkaleku ondoko pinuak kenduko dituztela ere jakinarazi du. Bere garaian, kimatze handi bat egin zitzaien, auzoko bizilagunek eskatuta, baina orain errotik kenduko dituzte, inguru heze horretarako handiegia direla arrazoituta.

Zaborrontzi berdeak kendu eta grisak jarri dituzte Mendaron eta herritarren %72k eskuratu dituzte zaborrontziak zabalitzeko txartelak. Dena den, Udalak erabaki du hilabetez zaborrontziak zabalik uztea, falta diren horiek euren txartelak eskuratzeko tartea izan dezaten. "Jende batek ez du jakingo, beharbada, baina zaborrontzietan jarrita dagoen moduan, hilabetez zabalik egongo dira. Diot azken egunotan zabor-poltsak agertu direlako zaborrontzien ondoan", esan du alkateak.

Krosari buruzko erakusketa hilaren 25a arte izango da ikusgai



Joan zen barixakuan aurkeztu zuten Juan Mugertza krosaren gaineko historia biltzen duen *Gazelen Hatsa* liburua, Elgoibarko Kultur Etxean, eta segidan erakusketa zabaldu zuten, eraikin bereko erakusketa gelan. Erakusketa otsailaren 25a arte egongo da zabalik, eta Eduardo Arrillagaren argazkiez eta beste zenbait ar-

gazki historikoz gain, krosarekin zerikusi zuzena duten hainbat objektu ere bildu dituzte erakusketan, Ego-Toki elkarteok eta Mintxeta taldekoek lagatakoak denak. Jesus Mari Sarasuak eman zituen aurkezpenaren erakusketaren inguruko azalpenak eta hark esan zuen lan handia egin behar izan dutela bildutako guztia aurkeztu eta erakusketa bera zuten espaziora egokitzeko.

Erakusketan txoko berezia eskaini diote Juan Mugertza zenari (Elgoibar, 1900 - Mungia, 1937). Felix Astigarragak lokalizatu ditu Mugertzaren argazkiak, Donostiako Kutxatekan. Horietako zenbait sekula identifikatu eta argitaratu gabeak dira, eta horietako bat da aurtengo krosa iragartzeko erabili zutena.

"Erakusketa xume, baina ondo prestatua da. Elgoibarko herritari eta elgoibartarrei eskainia", esan zuen Sarasuak aurkezpenaren, eta eskerrak eman zizkien Elgoibarko Udalari, Mintxeta Atletismo Taldeari, Ego Toki elkarteari eta 75. urteurreneko ospakizunetz arduratu den batzordeari.

Mozorroak, musika eta dantza Inauterien osagai

Inauteriek hartu dute lekua Elgoibarko eta Mendaroko kaleetan eta martitzenera arte mozorro eta jai girorik ez da faltako.

Mendarok ekingo die jaiari 15:00etan Ikastolako jaialdiarekin. Jaiari gozatzeko, gainera, Arno Guraso Elkartekoek txokolate ogitartekoak emango dizkiete umeei. Elgoibar Ikastolakoak 15:15ean abiatuko dira eta herriko kaleetan barrena euskal inauteria antzetzuko dute, euririk ez bada.

Ikastetxeetan ezezik mozorro festa ludotekako bazkideek ere izango dute. Aurrez prestatutako mozorroekin lehiaketa egiteaz gain, merienda eta dantzaldia ere egingo dituzte.

Dantzari musikak hartuko dio lekua urtero bezala Sinuosek aurtengorako ere inauterietako kontzertu berezia antolatu baitu. 23:00etan izango da Kultur Etxeko sotoan.

Zapatuan ere Mendaron hasiko dira eguerdian Bizi Poza txarangaren kalejirarekin. Arratsaldean, dantza festa, txokolatada eta diskoteka izango dira Goñatin.

Mozorrotzeko makillajea ezinbesteko



koa izaten da gehienentzat eta Gaztelekuan makillatzaile profesional bat egongo da gazteak apaintzen 15:00etatik. Arratsalderako beste makina bat ekitaldi antolatu dituzte: Atxutxi-

karaokea eta koreografiak Maalan; mozorroen eta karrozen desfilea, Mautitxa txarangarekin eta erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin Maalatik Kalegoen plazara; eta han koadrilentzako jolasak. Gauean, berriz, erromeria egongo da Maalan 00:30ean Fan&Go taldearekin.

Domekan ere dantzak izango du tokia Eguren orkestrarekin 18:00ean Jubilatuen Biltokian. Martitzenean ere dantzarako elkartuko dira erretiratuak ordu berean eta mozorroen lehiaketa ere egingo dute.

Umeek, berriz, txotxongiloak ikusi ahal izango dituzte, Kontu kantariaren *Mendian ibiltari* ikuskizunean eta oroi-menean ditugun kantuak doinu eta erritmo berezietan entzuteko aukera eskainiko dute Herriko Antzokian.

Martitzenean Mendaron haur parkea ipiniko dute arratsaldean frontoian. Elgoibarren, berriz, jendea mozorrotuta elkartu eta kalejira egin ondoren, *Kantu Kolore* haur berbenan dantza egingo dute. Inauteriak Mautitxa txarangaren kalejirak itxiko dituzte. **Egitarau osoa agendan.**



SAMSUNG
LED TV
Full HD TV

549 €

LED SAMSUNG 43"
UE43M5505AKXXC

SMART TV - 3x HDMI
A+
2xUSB



BOSCH LEHORGAILUA
WTG87238EE

Bero ponpa
A++
8 Kg

Motor inverter, 10 urteko bermea
Gelditzeko eta kargatzeko funtzioa

629 €



COMBI BOSCH
KGN33NL3A

Hatz marka kontrakoa - INOX
No frost - 176 x 60x 66 zm
Led argiztapena

499 €

MILAR BIRE

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

Dendako prezioak
Produktuak apartu arte



Joxemartin Urrutia Abio

"Txotxe"

2018ko otsailaren 4an hil zen, 56 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Joxemartin Urrutia Abio

"Txotxe"

**Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.**

Zure betiko kuadrilla



Joxemartin Urrutia Abio

"Txotxe"


2018ko otsailaren 4an hil zen , 56 urte zituela.

**Geldirik egote honek
ez dizu onik egiten,
abiatu zara beste behin
hegoalderantz.**

**Pixka bat sakonago,
pixka bat urrutiago.**

**Bidaia ona izan, Joxemartin.
Merzougan elkartuko gara
gaueko zeruari begira.**

Zure lagunak



Joxemartin Urrutia Abio

"Txotxe"

2018ko otsailaren 4an hil zen, 56 urte zituela

**Antzerkiarekiko pasioak elkartu gintuen eta "Izarrak
marrazten" ikusi zintugun. Fikziotik errealitatera dagoen
marratxoaren apurketa krudela izan da. Izarrei begira
jartzen garenean, zu ere bertan zaudela jakingo dugu.**

Maite zaitugu!
Larra eta Edurne.





Maria Jesus Otaegik denda hustu ahala oroitzapenerako gordeko ditu oihal, makina, plantxa eta Jose Mari Agirrearen guraizak.

Agirre jostundegiko azken puntadak

Orratza baino, haria luzeagoa behar dela dio esaera zaharrak pazientziari keinu eginez, eta pazientziari orratza eta haria lotuz, bide luzea egitea lortu dute Agirre jostundegian. Jose Maria Agirrek hasitako bidari Maria Jesus Otaegik eman zion segida dendan eta ia 70 urtez jostundegia eta denda irekita izan ostean, iritsi zaio azken puntadak emateko ordua. Hala ere, ofizioa afizio ere baduenez, ez dauka oraindik jostorrotzak guztiz alboratzeko asmorik eta jarraituko du ingurukoen arropoi konponketak egiten. Oihalak, prakak, jakak... piskanaka apaletatik erretiratzan ari den bitartean, hitzez josi dizkigu garai bateko kontuak, bezeroei harrera egiteko erabiltzen zuten mahaiaren aldamenean.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Urrerko orratzez dena josi omen daiteke, eta urrezko urteurrena pasata diamantezkora iritsi aurretik, atekak itsiko ditu Elgoibarko azken jostundegiak, Agirrek. Jose Maria Agirrek ireki zuen jostundegia orain dela 70 urte inguru, eta Luz Abascalekin elkartu ostean, jende gehiago hartu zuten lanerako, 10-12 bat lagun.

Hasierako urteetan josi baino ez zuten egiten Agirrenean: "Alkandorak neurriera egiten zituzten hemen, eta horretarako oihal ugari izaten zituzten. Alkandoren poltsikoak ere bakoitzaren inizialekin edo izenarekin brodatzen zituzten. Hemen, telak, alkandorak, prakak, trajeak eta jakak izaten zituzten eta gabardinak fabrikatik ekartzen zituzten, baita berokiren bat edo beste ere", azaldu du Maria Jesus Otaegik, Agirreneko azken saltzaileak.

BEZEROEN ETA PRAKAGINEN ETXEETARA

Dendaren ardura eta josteko hainbat lan hartu zituen bere gain Maria Jesusok, Jose Mari Agirrek jostundegia utzi zuenean. Baina bere lehen lanak beste batzuk izaten ziren. "Umetan, 11 urterekin, ekarri ninduten, mandatarik lanetarako. Oihalen aukerak liburu handi batzuetan erakusten zituzten, eta etxeetara joaten ginen liburu haiek hartuta, bezeroek oihalak aukera zitzaten".

Bestalde, prakaginak ere bazituzten eurentzako lanean, baina haiek nork bere etxeetan egiten zuten josten. "Jose Mari ebaki eta prestatzen zituen oihalak, eta nik prakaginen etxeetara eramaten nituen. Jostundegian batez ere traje eta jakak egiten genituen. Horrekin nahikoa lan bazegoen. Astean ba-

“Jose Mari Agirreren trajeek eta prakek fama

handia zuten, esaten

zelako oso ondo

egokitzen zirela

gorputzera”

- Maria Jesus Otaegi -

koitzak 20-30 egiten zituen”. Prakaginez gain, jakak forratzen zituztenak, botoi-zuloak egiten zituztenak, brodatzaileak, eta beste zenbait jostun ere bazituzten, baina dendatik kanpora betetzen zuten euren egitekoa. Horiengana joan-etorrian ibiltzen zen enkargutan Maria Jesus, eta gainerako denbora dendan egiten zuen. “Jose Marik erakusten zidan oihalen ertzak puntada luzez josten eta baita jostunaren beste hainbat lan egiten ere”. Denborarekin, jostundegiko emakumeak erretiroa hartzen hasi ziren eta Maria Jesus bera hasi zen hainbat joste lan egiten, dendaren ardura bere gain hartzearekin batera.

ARROPA, NEURRIRA

Hala ere, Jose Mari Agirre zen garai hartan jostundegiko burua. “Bizimodu osoa eman zuen jostun. Bezeroak oihalei buruzko aholku eske etortzen zirenean berarekin hitz egin nahi izaten zuten guztiek. Berak hartzen zizkien neurriak eta bezero bakoitzarentzako patroia bana sortzen zuen gero. Oihala ere berak ebakitzen zuen, eta gero tailerrekoek josten zituzten arropak, baina beti bera presente zela; berak ematen zituen azken ukituak”.

Neurrira egindako arropa da jostundegietako ardatz, baina Maria Jesusek argi dauka orduan ez zela arropa orain bezala josten. “Dena neurrira egiten zen orduan. Gaur egun, baina, jendeak garestiegi irizten dio neurrira egindako arropari. Baina kontuan hartu behar dugu norbere neurria egiteko, lehenengo eta behin patroia sortu behar dela, propio bezero horrentzat. Hemen ez da marka handien lantokietako konturik. Han laserrak ebakitzen dituzte denak, berdin-berdin. Josteko modua ere oso ezberdina da, baita makinak eurak ere. Gurean josturak makinaz josten genituen, baina gainontzekoa, eskuz”. Agirrenera, trajeak egiten zirenez, ez zen hainbeste emakume joaten, baina hala ere, emakume batzuei ere egin zizkieten trajeak. “Orain dela gutxi jakin dut bezero baten ahotik bere ama izan zela Elgoibarren prakak jantzi zituen lehendabizikotariko emakumea eta praka haiek Agirre jostundegian egin zizkietela. Gainera, Jose Mariren trajeek eta prakek fama handia zuten, esaten zelako jantzi eta gorputzera oso ondo egokitzen zirela”.

Elgoibar inguruetara ez ezik Agirre jostundegiko arropak munduan barrena ere zabalduta ziren. “Mugertza Krosera etortzen ziren korrikalariak, Mamo Woldek, ingelesek... berokiak probatzera etortzen ziren gurera. Garai hartan nobedadea izaten zen. Hemengo arropak probatu eta gustuko izanez gero, eraman egiten zituzten. Gure dendan aurkitu dugu kroserako jostundegiak emandako garaikur bat ere”.

Urteak aurrera joan ahala, arropak egiteko lanak behera egin

zuen. Luz jubilatuta egin zen, Maria Jesusek dendaren ardura zuen batik bat eta azken traje apurra Jose Marik eta kanpotik mangak egiten zituen lagun batek egiten zituzten. “Iritsi zen momentu bat Jose Marik eta biok ezin genuela dendako lanei eta jostuntza lanei geuk bakarrik eutsi. Gainera, kanpoko arropa hasi zen sartzen, eta arropak neurrira egiteko kontua asko jaitzi zen. Beraz dendan arreta

gehiago jartzen hasi ginen. Dendan denetarik geneukan: alkan-dorak, prakak, jakak, berokiak, jertseak... denak gizonetzkoena. Dendako hasierako urte haietan, emakumezkoen arropa ere izaten genuen, baina ni etorri eta lasterra kendu genituen”.

KONPONKETAK

Arropak neurrira egiteko lanak behera egin arren, arropa konpontzeko zerbitzua jartzeko eskatu zion Maria Jesusi. Beharra zegoen. Bazituen konponketak egiten zizkieten jostunak eta harrietako bat lagun hartuta zerbitzu hori ematen hasi ziren dendan, eta poliki-poliki hasi zen jostun gehiago hartzen ere. Dendaz arduratzen zen bera gehienbat, baina hala ere, konponketak beti gainbegiratzen zituen. “Hainbeste urtez hemen lan eginda, begiratu batean banekien banekien nola zueden. Denetariko arropa konpondu dut dendan. Garai bateko arropak ez zuten gaur egunekoekin zerikusirik. Oihalak beldurgarri aldatu dira”.

Oihal ugari gorde ditu dendako apaletan eta ez nolana hikoak gainera. “Auskalo zenbat urte dauzkaten eta ezagutzen dituenak asko apreziatzen ditu. Kalitatean ez dago konparaziorik ere”. Bartzelonan diseinu ikasketak egiten ari den gazte elgoibartar bat joan zaio dendara duela gutxi, eta Maria Jesusek dio harrituta gelditu zela mutila, orduko oihalak nolakoak ziren ikustean. “Niretzat ere gustagarria izan zen, banekielako mutilak izugarri estimatu zituela nik emandako oihalak”.

Berak ere badu oroitzapen modura oihal batzuk gordetzeko asmoa, baita jostundegiko beste hainbat kontu gordetzeko ere: ikatzarekin funtzionatzen zuten plantxak eta elektrikoak izan arren, pultsuan plantxatzen zuten plantxak, adibidez. Jose Marik erabiltzen zituen guraiza handiak ere ez dauzka inori emateko. Denda lagatzeak ere pena eman dio, bizitza osoa eman duelako bertan. “Umetatik egon naiz hemen goiz, arratsalde eta batzutan gaez ere bai. Poz asko eman dit honek eta negar asko isuri dut hemen”. Elgoibartarrei oso eskertua dago, era berean. “Itxi dudan honetan sekula baino lan gehiago daukat konponketekin. Pena ematen dit etortzen direnei ezetza emateak. Urtetako bezeroekin konfiantza dut eta badut haien gustuen berri. Lotura estua dut batzuekin eta jarraituko dut haien arropari konponketa txikiak egiten, baina beste martxa batean”.

Ehunez estali dute urtetako lana Agirrenera, baina beti gordeko dituzte jostundegian txukun jositako kontuak.

“Komunikazioak eskatzen du kontalariak eta entzuleek ere euren alea jartzea”

▶ PELLO AÑORGA IDAZLEA ETA IPUIN KONTALARIA

Oiartzungo Ikastolan irakasle aritu ondoren ipuin-kontaketan murgildu zen. Ipuinak idatzi ez ezik (50etik gora argitaratu ditu) baitan eta bestean ipuinak kontatzen dizkie haurrei, eta nola kontatu irakasten die baita helduei. Elgoibarko liburutegian aritu da horretan. Ipuinak kontatzeko espazioak nola sortu azaldu du eta baita kontaketarako estrategiak eman ere.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

◆ Urte asko dira ipuin-kontalari lanetan hasi zinela. Zerk eraman zintuen ipuinak kontatzera?

Haurrek. Ni orduan oso-oso lotsatia nintzen helduekin. Haurrei eta ipuinei esker, baina, asko hazi naiz eta orain helduak trebatzen ere ibiltzen naiz. Gerorako kontua izan da hori, baina. Ipuinak kontatzen ditut, eta idatzi ere bai. 50etik gora argitaratu ditut. Hala ere, idazten dudan guztia ez dut kontatzen. Badira liburuak prestatzen direnak ondo kontatu ahal izateko; beste batzuk intimitatean kontatzeko dira, eta beste zenbait askorekin konpartitzekoak dira, taldean kontatzekoak... Liburu bakoitzak bere espazioa du.

Ipuinek eta haurrek erakutsi didate elkarri entzuteko espazioa sortzen. Haurrek berez badute espazio hori, baina helduoi gehiago kostatzen zaigu. Gaurko gizartean gauza batzuk galdu ditugu eta saiatzan naiz modu sinplean azaltzen zentzua nola erabili. Saiatu behar gara elkarrekin hobeto komunikatzen, baina horretarako jakin behar dugu elkarri ondo entzuten.

Eduki eta informazio asko dugu, baina ez dugu denborarik elkarri entzuteko. Nola sentituko da haurra afektatua istorio batekin elkar entzuten ez badugu?



◆ Zer behar da ipuinak ondo kontatzeko?

Batez ere ondo entzutea. Ondo entzunez gero, ez da asko mugitu behar, baina izugarriko arazoak ditugu horretarako. Ipuinak kontatzea komunikatzea da, eta komunikazioak eskatzen du kontalariak eta entzuleek euren alea jartzea. Zubi hori ondo eraikitzekeo estrategiak garatu behar dira.

◆ Bakoitzak bere moduak izan arren, ipuinak egoki kontatzeko egongo da oinarrizko jarraibiderik, ezta?

Kontalariaren jarrera garrantzitsua da. Jakin behar du haurra eta norbere burua ondo entzuten, lekura egokitzen. Kontalaria beti besteen zerbitzura dago. Konfiantza ere ezinbestekoa da. Ipuinek benetan

lotura afektiboa sortzen dute. Entzuleak gure lagunik handienak izango balira bezala tratatu behar ditugu. Horregatik giro aproposa sortzea ezinbestekoa da. Konfiantza eta entzumena erdia baino gehiago dira. Ahotsari dagokionez, erritmoak eta tonuak badute zeresanik. Baita keinuek eta begiradak ere. Ipuina kontatzerakoan interpretatu egin behar da norbere angulutik. Ipuin bera kontalari ezberdinengandik jasoz gero ezberdina da, bakoitzak bere erara jantzen duelako. Bere gorputza, ahotsa, mugimendua eta arnasa ematen dizkio.

◆ Ipuinak kontatzeko guneak beti berberak izan behar al dira?

Denetarikoa gune eta uneetan kontatzen daitezke. Gaur egun asko ohean kontatzen

tzen dira. Baina batek esan zidan ipuinak ez direla loak hartzeko, esnatzeko balio dutela. Horrekin bat nator, benetako ipuinek begiak gehiago zabaltzeko balio dute, gehiago ikusteko eta entzuteko. Ipuin onek hainbeste konektatzen gaituzte mugiarazi egiten gaituztela eta bukatzerakoan haurrak beste leku batean egoten direla. Entzulea lekuz aldatzea magia da.

Gunea zehazteaz gain errito bat ere markatu behar da ipuinak kontatzeko. Erritoaren baitan legoke, adibidez, ipuina nola hasi eta bukatu, nolako giltza erabili. Demagun, ipuina kutxa batean dagoen artefaktu bat dela. Bada, hori irekitzen jakin behar dugu, eta horretarako giltza zein den ere bai. Haurra eta entzulea ondo kokatzeko zabaldu, kutxan sartu eta ateratzerakoan itxi egin behar da. Errittoa ipuinarekin berarekin ezezik espazioarekin ere sortu behar da.

♦ **Ipuin asko oherakoan kontatzen dira. Leku bakoitzerako ipuin apropos bat bilatu behar al da?**

Ez da premiazkoa gaia zehaztea. Gustuko ditugun ipuinak partekatzea da gakoa. Gaur egun, merkantilizazioa iritsi da ipuinen erresumara eta gauza bakoitzerako propio sortzen dira ipuinak. Esaterako, loak hartzeko, beldurraren aurka egiteko... Errespetuz, baina hortik aparte ikusten dut nire burura; nik komunikazioa primatzen dut. Haurregana iritsiz gero, izugarriko balio terapeutikoa dauka eta bide batez beste balore batzuk transmititzen badira, ondo, baina kontua ez da baloreak lehenestea.

♦ **Ipuinak kontatzeko oinarriak azaldu dituzu ikastaroan, baina zein da ipuinen garrantzia?**

Zertarako kontatu jakitea. Ipuinek lotura afektiboetan duten inportantzia aritu naiz. Batik bat lehen haurtzaroan horrelako guneak sortzea ezinbestekoa da. Orduan elkarri ez badiogu entzuten, kasu honetan ipuinak lagun, uste dut hutsune handi bat izango dugula.

♦ **Umeei modu errazegian kontatzen al zaizkie ipuinak, aurrez aipatutako oinarriak kontuan hartu gabe?**

Jarreraz gain, norbere gustuko ipuin

bat aurkitzea da garrantzitsua, eta ondoren partekatzea, norberak barruan azkureren bat sentitzea, ederra dela pentsatu eta hori kontatzea. Zoritxarrez gaur egunean besterik gabe kontatzen ditugu ipuinak, partekatzen ditugu erakusteko, ez hainbeste emozionatzeko. Nik nahi dudana da ipuinak komunikatuz emozionatzea, ez bakarrik informatzea.

Horretarako ohiturak sortu behar dira etxean, guk sortu ezean ez baitira sortuko. Esaterako, nola antolatu denbora. Bizi garen gizartean dagoen korranteak eraman egiten gaitu, eta ez dago denborarik bakarrik kontsumitzeko. Ez dugu korrantearen kontra joan behar, baina erreka bazterretan sortzen diren geldiuneak balira bezala jakin behar dugu espazio horiek hartzen elkar entzuteko. Hori egiten badugu, hobeto sentituko gara, hobeto komunikatuko gara eta haurrek eskertuko dute.

Isiltasunak badu garrantzia horretarako, baina ez inposatuak; isiltasuna pasiboa izan behar da, baina aldi berean dinamikoa. Kontaketetan saiatzen naiz isiltasunetik abiatu eta isiltasunarekin amaitzen, hitzak benetan ondo entzuteko edo garrasi bat egiteko, hobeto baita isiltasunetik abiatzea.

“Entzuleak gure lagunik onenak balira bezala tratatu behar ditugu beti”

♦ **Helduak gai izaten al dira ipuinak sortzeko ala liburuetara jotzen dute?**

Familia askotan esan izan didate liburuarekin zaila iruditzen zaiela eta beraiek asmatzen dituztela. Hori egiten dutenetako asko gizonak izaten dira. Ehiztaria denak bere gunera eramaten du; beste batek umetako tokietara eramango ditu umeak ipuinaren bidez. Kontatzeko

modu bat da, horrek ere sortu dezake bere magia. Merkatuan badaude istorio benetan ederrak, klasikoak direnak, eta ni horien zalea naiz. Betiko ipuin klasikoak behar ditugu, eta hala esaten dute pedagogoko eta psikologoek ere. Ipuin klasikoetan, ipuin berean emozio asko sartzen dira: beldurra, tristura, amorrua, poza... Ez da ipuin berezirik sortu behar emozio horiek azaltzeko; ipuin klasiko bakarra kontatuz, emozio guztiak sentiitu ditzakete haurrek. Bestalde, kontaketa irudiak, abestiak, poemak eta bestelakoak partekatzea ere gustatzen zait niri.

♦ **Umeak gero eta entzule zorrotzagoak al dira?**

30 urtean ez dut jarreraren alderik sumatu; gose bera dute. Baina kontaketa entzutera etortzen direnen adina asko jaitsi da. 2-3 urtetik hasi eta 6-7 urtera artekoak etorten dira. Adin horretatik aurrera urrutzen hasten dira. Denborarik ere ez dute umeek. Bestalde, haurregan dispersio gehiago dago. Atentzioa erreklamatzeko tontokeriak eginez, hitza hartuz, mugituz, altu hitz eginez...

♦ **Hainbeste ipuin sortuta badaukazu gai kuttunik?**

Asko erabiltzen dudana gaia itxura al daketarena da. Pertsonaia bat zulo beltz batetik beste lurralde edo toki batera joaten da. Bizia, heriotza, jaiotza, garapena, helduaroa, negua, udaberria... mugimendu horiek. Betidanik gustatu izan zaizkit. Hizkuntzarekin jolastea eta umorea ere gustuko ditut. Umorea asko estimatzen dut, eta zenbat eta helduago gehiago. Bestalde ez dut oso gogoko ipuineko pertsonaia pertsona edo animalia bat izatea. Protagonista hitza izatea gustatzen zait.

♦ **Ikastaroetan zein izan ohi da zure aholkua?**

Gutxienez ipuinak kontatzen gogoz hasteko esaten diet. Liburutegira gehiago etortzeko ere esaten diet eta liburua hartzeko, ukitzeko, usaintzeko eta etxera eraman eta elkarrekin irakurtzeko. Ipuina bera garrantzitsua dela jabetu behar da haurra, eta horretarako ilusioa ikusi behar du gudan.

Joxemartin Urrutia 'Txotxe' antzerkigilea hil zen domekan

Artista handi bat joan da. Domekan hil zen Joxemartin Urrutia *Txotxe*, 56 urte zituela. Txotxek Taupada antzerki taldean eman zituen aurreneko pausoak antzerkiaren munduan, eta 1987an Ekekei taldea sortu zuen, Mikel Osoro, Xabier Ansola eta Iñaki Odriozolarekin batera. [Geroago batu zitzaizkien Mikel Cornejo, Lorea Perez de Albeniz, Igor Odriozola eta Izaskun Arozena eta 2000. urtean desegin zuten taldea]. Ordurako, baina, Karrika antzerki talde amateurra sortua zuen Durangon Txotxek, beste hainbat lagunekin batera. Antzerkigintza irakasgai moduan ere ezarria zuen Kurutzia ga ikastolan hango irakasle zela, eta hainbat belaunaldi markatu zituen. Horregatik guztiatik pertsona estimatua izan da kultur munduan, eta asko izan dira haren izena goratu dutenak.

Zapatuan, Goya sarietan ere akorduan izan zuen Eneko Sagardoik aktore durangarrak, *Handia* filmagatik aktore berri onenaren saria jaso zuen unean. Baina zer diren kontuak. Biharamunean hil zen Txotxe eta etxerako bidean zirela jakin zuen Sagardoik: "Eta hauxe izan zen Twitterren utzi zion agurra: "Atzo eskertu nizun eta gaur joan zara. Bizitza eman zenidan gehien behar zintudanean. Txotxe, egingo dudan gauza bakoitzean eta esango dudan hitz bakoitzean entzungo zaitut". Ez zen Txotxek antzerkigintzari egindako ekarpena eta ingurukoengan laga duen arrastoa nabarmendu zuen bakarria izan. Igor Elortzak honela zioen domeka arratsaldean. "Biba eskola orduz kanpoko irakasleak. Biba zu, Txotxe". Antzeko hitzak izan zituzten beste askok ere, tartean Unai Iturriaga bertolariak eta Ander Lipus abangoardiako antzerkilariak. Baina Elgoibarren ere, arrasto sakona laga du Txotxek. Hona gertuko batzuen berbak.



EDURNE LASA
Taupada antzerki
taldekidea

Pertsona handia izan da, zentzu guztietan. Izan da aktorea, gidoilaria, zuzendaria, idazlea, margolaria... eta batez ere, izan da langile nekazina. Alor guztiak ukitu ditu; sortzaile osoa izan da. Horregatik, bere ekarpena izugarria izan da. Guk geuk berak egindako lan asko ditugu gordeta eta bere ondoan bizitako oroitzapen polit ugari ere bai. Sortzeko ahalmen izugarria izan du, eta grina handiko gizona izan da. Nik uste dut horrek batu gintuela, antzerkiarekiko pasio horrek. Hain gaude ukitututa, zer esan ere ez dakidala. Elkartzen ginenean denbora falta izaten zitzaigun beti elkarri esan nahi genizkion denak esateko. Beti zegoen laguntzeko prest. Izugarria izan da Txotxe, eta hasiak gara haren hutsunea sentitzen.



IÑAKI ODRIOZOLA
Umetako laguna eta
Ekekeiko taldekidea

Ingurua betetzen zuen pertsona zen. Umetatik ezagutzen nuen, eta beti izan da denean parte hartzekoa eta iritzia ematekoa. Ekintzailea izan da, ametsak gauzatzekoa eta ilusioa zabaltzekoa. Behe-behetik hasten zen beti eta taldearentzat izugarria zen tartean bere moduko bat izatea: bazekien idazten eta zuzentzen, bazekien makillatzen, bazekien arrotzeriaz eta moldatzen zen jantziteria kontuetan ere. Obraren alor guztiei helitzen zien. Ordu asko eskaini genizkion antzerkiari eta barre asko egin genuen berarekin. Bazuen dohai hori ere. Antzerkiari ez ezik herri mugimenduei ere asko eman die Txotxek. Hutsune handia laga du Elgoibarren, eta badakit Durangon ere arrasto luzea laga duela.



MIKEL CORNEJO
Ekekei antzerki
taldekidea

Artista handia izan da, eta pertsona handiagoo. Izugarria da zenbat jenderengana iritsi den. Pentsatzen zuena esatekoa izan da, zabala, ematekoa eta baikorra. Txispa handiko mutila, taldea egiten zekiena, eta ingurukoak motibatzen maisua. Eta hori guztiaz gain, bazuen pasio handi bat. Artista osoa izan da eta disziplina askotan aritu da. Eneko Sagardoik aipatu zuen furgoneta deskargatzen ere erakutsi ziola eta oso identifikatuta sentitu nintzen. Izugarriko energia zeukan eta talentu handia jendea mugiarazteko eta erakartzeko. Iruditzen zait bizitza betea izan duela eta horrek pozten nau. Urte askoz bizi izan den jende askok ez du egin Txotxek bere bizitzan egin duenaren laurdena ere. Igarriko dugu hutsunea.

Santa Agedaren babesean kantari

Santa Ageda Egunaren aitzakian aurreko egunetan eskeak egin ziren Elgoibarko eta Mendaroko kale eta baserri auzoetan. Zapatuan Mendarokoek kale eta baserriak koplatu zituzten hiru taldetan banatuta. Euria egin arren, umorerik ez zitzaien falta izan eta gustura hartu zituzten atarrietan. Elgoibarren, Etxegiña taldekoak kale auzoetan ibili ziren kantari. Aurten, gainera, Kepa Urain koplariak utzi egin du taldea eta bazkaritan omenaldia egin zioten agurra dantzatzuz, berarentzat propio prestatutako koplak abestuz eta oparia emanez. Domekan Elgoibarko Izarrako bi taldeek eguraldiarekin zorte pixka bat gehiago izan zuten eta baserri auzoetan barrena jardun zuten kantari 30 lagunek. Argazki gehiago eta bideoa www.barren.eus atarian.



Elgoibarko Izarrako bi taldeek, domekan, 50 baserri inguru koplatu zituzten eta euritik babestu zituen Santa Agedak.



Kalean kantuan ibili ondoren, Etxegiñaok omenaldia egin zioten taldea utzi duen Kepa Urain koplariari.



Mendaron, hiru taldetan banatuta, euripean koplatu zituzte hainbat auzo.

Zartako arkulari Javier Varona Euskadiko txapelkun

Euskadiko Aretoko Arku Tradizionaleko eta Arku Biluziko VIII. Txapelketa jokatu zuten aurreko domekan Elgoibarren. Euskal Herriko arkulari onenak aritu ziren lehiari Olaizaga kiroldegiko kantxan. 18 metrora zeuden ituak jo behar zituzten arku modalitate desberdinetan. Arku institiboetan zortzi emakume lehiatu ziren, eta Arco Santurtzi taldeko Leire Torres gailendu zen. Gizonezkoetan 28 arkulari aritu ziren lehiari. Horien artean Zartako lau ordezkari: Andoni Campo, Rafael Segui, Hugo Sierra eta Javier Varona. Azken biak ailegatu ziren urrunen sailkapenean, baina elkarren aurka lehiatzea egokitu zitzairen final-haurdenetako kanporaketan. Varonak irabazi zion Sierrari eta finalerdietan Ignacio Moreno (Arco Santurtzi) kanporatu zuen Zartako arkulariak. Finalean Angel Carrillo (Abanto Gezaleriak) izan zuen aurkari eta 7-3 irabazi zion Varonak. Hugo Sierrak seigarren postua eskuratu zuen, Rafael Segui 21. postua, eta 26. postuan sailkatu zen Andoni Campo. Longbow erako arkuekin Javier Almagrok (Arco Santurtzi) irabazi zuen Euskadiko txapelketa. Arku biluzietan, Ainhoa Muñozek (Arco Santurtzi) irabazi zuen tituloa emakumezkoetan. Gizonezkoetan, berriz, Moises Alvarez (Gezi-bide) gailendu zen.



Javier Varona Zartako kidea txapelarekin.

Zabaldute emakumeen eta gizonen pala txapelketetarako izena emateko epea



Emakumeen binakako pala txapelketa antolatuta dute Elgoibarren zazpi-garren urtez jarraian, eta horrekin batera gizonen pala txapelketa ere antolatuta dute, hirugarrenegoz. Martxoaren 5era bitartean eman daiteke izena txapelketetan. Apirilaren 3an hasiko dira bi pala txapelketak eta ekainaren 15ean jokatuko dituzte finalak. Lagunak Pilota Eskolak antolatzen dituzten txapelketak, Udal Kirol Patronatuaren eta Berdintasun Sailaren laguntzarekin.

Morkaikorekin sagardotegira

Morkaikok eta Eibarko Klub Deportibok elkarlanean antolatu dute otsailaren 17rako irteera. Bi zati izango ditu. Lehenengoan Andatza mendia (562 m.) igoko dute. Andoiandik irten eta hamasei kilometroko ibilaldia osatuko dute Andatzako tontorreraino joan-etorria eginez. Irteeraren bigarren zatian, Usurbilgo Aginaga sagardotegira joango dira mendizaleak autobusez. 7:40ean irtengo dira Elgoibartik, King-kong-eko autobus geltokitik. 20:00ak alderako itzuliko direla Elgoibarrera aurreikusten dute. Gaur da izena emateko azken eguna. morkaiko@morkaiko.eus helbide elektronikora idatzi behar da izena emateko. Bazkideek 40 euro ordaindu beharko dute, eta 45 euro bazkide ez direnek.

Joseba Etxeberriak Tenerife taldea entrenatuko du Bigarren Mailan

C.D.Tenerifek entrenatzaile berria aurkeztu zuen astelehenean: Joseba Etxeberria. Entrenatzaile kargutik kendu duten Jose Luis Marti ordezkatzeko du elgoibartarrak kanariarren ahulkitxoan. Hala, aurreapausoa izango da Etxeberriaren entrenatzaile ibilbidean, Bigarren B Mailatik Bigarren Mailara (Liga 123) jauzia egingo baitu denboraldi honetan S.D. Amorebietako entrenatzaile izan denak. Tenerifek Etxeberriak Amorebietarekin zuen etete-klausula ordaindu du. Kanarietan ez zaio lanik faltako Etxeberriari, jaitsiera posturetatik puntu batera baitago Tenerife, denboraldi hasieran Lehen Mailara igotzea helburutzat zuen taldea. Erronka handia den arren, Etxeberriak esan zuen jokalaria oso onak dituztela taldean. "Ez da komeni epe luzerako helbururik jartzea, arriskua dagoelako gure bidetik aldentzeko. Orain arteko joera onena ez izan arren, ahalmen handiko taldea da Tenerife, eta gogor egingo dugu lan. Emaizta onak iritsiko dira".



Emaizak

FUTBOLA

Haundi 0 – Eibar 1

Urki 2 – Elgoibar 5 (1. erreg.)

Amaiak Bat 1 – Elgoibar 2 (Oho. jub.)

Elgoibar 4 – Ikasberri B 0 (Jub. 1. maila)

Elgoibar 1 – Amaiak Bat 0 (Oho. kad.)

Urki 2 – Elgoibar 7 (Kad. 1. maila)

Arrasate 4 – Elgoibar 4 (Oho. inf.)

Elgoibar 2 – Urki 4 (Infantil Txiki)

Elgoibar Berdea 8 – Amaiak Bat 3 (Aleb.)

Elgoibar Gorria 4 – Antzuola A 9 (Aleb.)

SASKIBALOA

C.D. Erroibide Irun 42 – Viento Sur Elg. 62

ESKUBALOA

Lauko 21 – Berango 17 (Senior emak.)

Alcorta F.G. 21 – Trapaga 26 (Senior giz.)

Salento 32 – Saieko 28 (Sen. giz.)

Tecnifuelle 21 – Kukullaga 18 (Jub. nesk.)

Usurbil 24 – Deca Elg. 27 (Jub mut.)

Astigarraga GYS 30 – Egia 32 (Jub. nesk.)

Urnieta 17 – Beristain Elg. 23 (Jub. mut.)

San Adrian 12 – Arilan Elg. 19 (Kad nesk.)

Urkunde 17 – Zarautz 31 (Kad. mut.)

Cometel 29 – Tolosa 10 (Kad. nesk.)

Arrasate 28 – Bankoa Elg. 18 (Kad. mut.)

Bacalaos Alkorta 21 – Zarautz B 27 (Inf. nesk.)

Zarautz C 26 – Modeltek 16 (Inf. nesk.)

Bidasoa Irun 22 – Hotel Txarriduna 19 (Inf mut.)

Pneumax 11 – Ereintza 12 (Inf. nesk.)

Bera Bera 19 – Zubacor 20 (Inf mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 10

12:00 Elgoibar – Eibar (Oho. jub.)

Asier Urain Espainiako eskubaloi selekziara deitu dute



Jubenil mailako Espainiako eskubaloi selekzioak Granadan egingo duen trebakuntza saio baterako deitu du Sanloko jokalaria Asier Urain. 2000 eta 2001 urteetan jaiotako 60 eskubaloi jokalariri eskainiko diete formazioa, Sierra Nevadako Errendimendu Handiko Zentroan. Otsailaren 8tik 15era izango da.

Husnako berdinketa Mintxetako derbian

Lehen hiru sailkatuekiko aldea murrizteko aukera ona galdu zuen Haundik Eibar Urkoren aurka Mintxetan jokatu zuen derbian. Partidako azken hamar minutuak jokalaria bat gutxiagorekin jokatu zituzten eibartarrek, epaileak jokalaria bat kanporatu zuelako, baina Haundik ezin izan zuen aukera garbirik sortu. Hala, golik gabe amaitu zen auzotarren arteko norgehiagoka. Haundi laugarren postuan sailkatuta dago une honetan, 32 punturekin. Aloña Mendik eta Eibar Urkok 37 puntu dituzte eta 38 puntu ditu Tolosak, Gorengoeren Erregerional mailako bigarren multzoko liderrak.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edota kalera atera eta paseatzen laguntzeko prest.
☎ 699 535 728

Adinekoak edo umeak zaintzen, sukaldako lanetan laguntzen edota garbitzaile aritzeko prest.
☎ 602 047 812

Nagusiak zaintzen eta garbitzaile edo ile-apaintzaile lanetan aritzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 632 839 617

Garbiketa lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko prest.
☎ 651 479 142

Edozein motako lanetan hasteko prest.
☎ 632 918 379

Edozein motako lanetan hasteko prest.
☎ 631 381 772

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta portalak, tabernak... garbitzeko eta sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest. ☎ 642 249 818

Neska gaztea lanerako prest. Adinekoak zaintzen edo garbiketan. Erreferentzia asko. ☎ 688 712 075

Neska lanerako prest. Adinekoak edo umeak zaintzeko zein etxebizitza eta portalak garbitzeko prest. Ordutegi malgua. ☎ 658 273 486

Adinekoak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest, orduka eta interna moduan. ☎ 617 810 065

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere bai. ☎ 662 201 935

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere bai. ☎ 612 265 747

Etzeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Erreferentziak ditut. Interna aritzeko prestutasuna. ☎ 664 182 488

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka aritzeko gertu. ☎ 602 123 942

Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest, orduka. ☎ 632 621 940

Arratsaldeetan eta astebukaeretan pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Orduka. ☎ 612 423 242

Orduka, gauetz eta asteburuetan lan egiteko prest.
☎ 629 872 270

Orduka lan egiteko prest.
☎ 632 092 069

Gizonezkoa lan bila. Interno eta orduka aritzeko prest.
☎ 632 092 069

Interna moduan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentziak ditut.
☎ 631 910 861

Ospitalean pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan eta umeak zaintzen lan egiteko prest. ☎ 666 197 831

Arratsaldez pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 646 821 678

Esperientziadun mutila adin nagusiko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 686 077 316

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Fomakuntza eta esperientzia handia ditut. Gauak pasatzeko prest.
☎ 671 989 434

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. 10 urteko esperientzia eta geriatría laguntzaile titulua. Ospitalean eta interna aritzeko prest. ☎ 697 754 174

Eskaintzak

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira Elgoibarko taberna batean lan egiteko. Esperientzia izatea beharrezkoa. Interesdunek bidali dezatela curriculuma e-posta helbide honetara: tabernalan@gmail.com

ETXEBIZITZAK.....

Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut alogagai Elgoibarren. Urgente.
☎ 638 338 816

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 629 872 270

Etxea alokatzen dut Santa Klaran. Bederatzigarren solairu batean dago. Hiru logela, berogailu zentrala eta terraza handia ditu. 550 euro. .
☎ 692 696 934

GARAJEAK.....

Garaje itxia alogagai Ikastola ondoan.
☎ 943 531 648

Garaje itxia alogagai Arregitorren.
☎ 943 742 211

BESTELAKOAK.....

Orain dela pare bat hilabete, familia argazki zahar bat topatu nuen Maala tabernan. Galdu duenak estimu handian izango duela pentsatzen dut eta gordeta daukat etxean. Berreskuratu nahi duenak deitu. ☎ 647 134 925

1988an jaiotakoen kinto bazkaria. Aurten 30 urte betetzen ditugun elgoibartarrok kinto-bazkaria egingo dugu maiatzaren 19an. E-mail bat bidali dugu azken egunetan informazio gehiagorekin. Mezu horren berri izan ez baduzu, jarri gurekin harremanetan elgoibar1988@gmail.com helbidera idatzita. Anima zaitetz!



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Berdeko Administrazioaren Erakunde Ekonomikoa

ROSA MA PINTADO

Etaldearen Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean hainbat postontzi egoera txarrean daude. Jakin nahi nuke horien aldaketa bizilagun guztion artean ordaindu behar dugun ala bizilagun bakoitza arduratu behar den bere postontziak.

Eraikuntza antolamenduari buruzko legeak honela dio postontzien funtzionaltasunari buruz, eraikuntzaren oinarriko baldintzetan: posta zerbitzuei sarbidea erraztu behar zaie horretarako baliabide egokiak jarri, araudi zehatzak adierazitakoaren arabera.

Familia bakarreko etxebizitza eta merkataritza edo industria lokal bereizietako entregak sarrera ondoko edo goiko aldeko kutxatilatagi batean egin ahal izango dira bide publikotik. Derrigorrez jarri behar dira kalearen izena, zenbakia edo posta helbidearen beste datuak, baita urbanizazio edo eremuaren izena eta zenbakia ere. Azaldu daitezke era berean etxebizitzan bizi diren izen-abizenak edo izen soziala ere.

Ondorioak: Kutxatilatagi komuna derrigorrezkoa da; eraikuntzaren funtzionaltasunerako ohiko elementua, komunitaterako derrigorrezkoa. Postontziaren instalazioa jabeakideen artean banatu ezin daitezkeen gastu orokortzat jo behar da. Izan ere, instalazioa ez da bizilagun baten edo gutxi batzuen onerako, baizik eta komunitatearen zerbitzurako, posta zerbitzuak ezarritako obligazioak betetzeko da. Beraz, komunitateak osotasunean ordaindu behar du ez postontzia egoera txarrean duten bizilagunek soilik.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Erik**, datorren igandean, 7 urte beteko dituzu. Ondo pasa zure urtebetetzean. Etxeko guztion partez.



Zorionak, **Juani**, amamarik onena. Eskerrik asko emandako guztia- rengatik. Muxu bat Malenen eta Oihanen partez.



Zorionak, **Leire!** Bederatzi muxu potolo etxeko partez. Igandearako prestatu pasta!



Zorionak, **Jare!** 6 urte bete ditugure etxeko sorgintxoak. Patxo potolo bat neba Aratz, lehengusu Ibai eta Lier eta etxeko partez.



Zorionak, **Sare** eta **Auritz**, hilaren 10ean urtebete egingo duzuelako. Gurasoen, aitxitxa-amamen eta osaba Anderren partez.



Zorionak, **Julen** eta **Aimar**, gure mutil handiak. Urtarrilaren 19an 8 urte eta otsailaren 7an 4 urte bete dituzuelako. Muxu asko familiako partez.



Zorionak, **Arai** eta **Leire**, sorginak! 6 urte bete dituzuelako. Ondo pasa eta muxu pila bat!



Zorionak, **Aitor** eta **Aimar**, zuen urtebetetze egunean.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

SALENTO

BAR PIZZERIA

Pedro Migel Umuzuno, 10 - 20870 Elgoibar
salento_elgoibar@hotmail.com
Facebook/Salento de Carlo

BENETAKO MAITASUNA

ZURETZAT LAGATAKO AZKEN PIZZA ZATIA

SAN
BALENTIN
EGUNEAN
2 PIZZA
+
LAMBRUSCO
BOTILA
+
2 KAFE

25€

943 740 196

Egin ezazu zure eskaera, momentu onenak bezala pizza ere elkarrekin janda goxatzen delako.

ETXEZ ETXEKO BANAKETA ASTE GUZTIAN ZEHAR:
Astelehenerik ostegunera: 20:00etatik 23:00etara
Ostiral eta larunbatetan: 20:00etatik 23:30era
Igandean: 13:00etatik 16:00etara-20:00etatik 23:00etara.

PINTURA ETA DEKORAZIOA

CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62

Uzuri

ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

46,90

etik hasita

Bilduma berria!

KYPERS
EYEWEAR

9 BARIXAKUA

11:00 Gudarien gorpuzkinak hobiratzeari. Duintasunaren Kolunbarioan, Elgoibarko Olasto hilerrian. Antolatzailea Ahaztuen Oroimena.

18:30-20:30 Odol-ematea. Elgoibarko Odol Emaileen Elkartearen (Osasun Zentro ondoan).

20:30 Opera (aurrez grabatuta): *Rigoletto*. Herriko Antzokian.

11 DOMEKA

16:30 Txotxongiloak. *Kontu kantari 2: Mendian ibiltari*. Herriko Antzokian.

15 EGUENA

20:00 Elgoibarko Isiltasun Eskolaren topaketak. Gidaria: Jose Cruz Igartua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16 BARIXAKUA

21:30 Bideo forum-a. *Cincuenta sombras de Grey*. Gidaria: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea.



INAUTERIAK 2018 Elgoibar

9 BARIXAKUA

15:15-16:30 Ikastolak antolatuta, Euskal Inauteria. Kalejira Ikastolatik Kalegoen plazara. (Euria bada, Ikastolan).

16:30-19:30 Mozorro festa, Ludotekaren. Merendola, mozorro lehiaketa eta dantzaldia.

23:00 Sinüoserren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

10 ZAPATUA

15:00-20:00 Inauterietako makillajea. Makilatzaille profesional bat egongo da Gaztelekuan.

18:00-19:30 Atxutxikaraoketa eta koreografiak. 2-12 urte bitarteko haurrentzako saioa, Maalako parkean.

19:30-20:45 Mozorroen eta karrozen desfilea, Mautitza txarangarekin eta erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin. Maalako parketik Kalegoen plazara.

21:00 Mautitza txaranga eta kuadrillentzako jolasak. Kalegoen plazan. (Euria bada, Maalan).

00:30-02:30 Erromeria, Fan&Go taldearekin. Maalako parkean.

11 DOMEKA

18:00-21:00 Dantzaldia, Eguren orkestrarekin. Jubilatuen Biltokian.

13 MARTITZENA

16:45 Mozorroen elkartzea, Kalegoen plazan.

17:00 *Kantu Kolore* haur berberena. *Jalgi hadi dantzara!* Kalegoen plazan. Euria eginez gero, Maalan.

18:00-21:00 Eguren orkestrarekin dantzaldia eta mozorro lehiaketa, Jubilatuen Biltokian.

18:15 Mautitza txarangen kalejira. Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

INAUTERIAK 2018 Mendaro

9 BARIXAKUA

15:00 Ikastolako jaialdia. Jarraian, txokolatzeko ogitartekoak banatuko dituzte. Arno Guraso Elkarteak antolatuta

10 ZAPATUA

12:30 Bizi Poza txarangarekin kalejira.

17:00 Dantza festa. Goñati pilotalekuan.

18:30 Txokolatada eta diskoteka. Goñati pilotalekuan.

13 MARTITZENA

17:00 Haur parkea. Goñati pilotalekuan

Zinea (Herriko antzokian)



'El gran showman'

10, zapatua, 19:00 eta 22:30 (VOS)

11, domeka, 19:00

12, astelehena, 21:30

(Ikuslearen eguna)

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
9 BARIXAKUA	10 ZAPATUA	11 DOMEKA	12 ASTELEHENA	13 MARTITZENA	14 EGUAZTENA	15 EGUENA	16 BARIXAKUA
Egunez Etxeberria	Egunez * Fernandez * Barrenetxea	Egunez * Fernandez	Egunez Yudego	Egunez * Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean * Fernandez	Iluntzean * Fernandez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410



NOVAK

MEKANIZATUAK

943 748 573

novak@menovak.com

Albitzuri Industrialdea 4B
Elgoibar






Iñigo Lamelas



Jose Luis Azpillaga



gande goiza. Zer egin? Mendira joatea gustuko izanda, leihotik begiratu dut zer eguraldi dugun jakiteko. Giro goibela dago, euria ari du eta mendi-tontorrek elur-tuta ageri dira behelaino artean. Ez dago atsegina ibiltzeko, baina elurra zapaltzea ez legoke gaizki, gainera atzo joan nintzen igerilekura. Hala ere, elurretara joanda, labain egin eta min hartzen badut? Horixe bakarrik behar genuen!

Ordenagailua piztu eta Iñigoren argazkia jarri dut pantailan. Hara! Gaurko eguraldiaren oso antzekoa erakusten du argazkiak. Agian, elur gehiagorekin. Parajea ezaguna dut. Orain urte batzuk egon nintzen udazkenez Gorbeiaiko parkean. Gujuli edo Goiriko ur-jauzia da argazkikoa. Sekulakoa da!

Mendira joango ez naizenez, mendi-buelta "birtuala" egitea

erabaki dut argazkiari begira. Irudimena piztuta, ez zait zaila egin tokian kokatzea. Elur egin berria zapalduz noa. Gelditu eta zuhaitz biluziak, malda elurtuak, zeru lainotua, herriko etxe batzuk eta ur-jauzia dakuskit. Uraren erorketak eta zaratak bakarrik hausten dute paisaiaren geldotasuna. Txoriaren bat edo beste ere antzeman dezaket. Jakin-mina sortu zait. Nolakoa ote da ur-jauziaren azpiko erreka? Putzurik ba ote dago? Ez dirudi zaila beharainoko bideak. Abiatu egin naiz. Elur dezente dago: belauetaraino iristen zait. Kostata, baina 200 metro-edo egin ditut. Orain, ordea, oso zail ikusten dut aurrerako bidea. Aldapa oso pikoa da eta sasia eta elurra besterik ez dago. Lastima! Buelta hartu beharko dut, baina oso labain dago eta ezin dut gora egin. Hau marka! Ez behera eta ez gora gelditu naiz, trabatuta. Hau estualdia! Ea oraindik 112ra deitu behar dudan! Nahikoa da! Ordenagailua itzali eta banao igerilekura, ur epeletara.

"Nolakoa ote da ur-jauziaren azpiko erreka? Putzurik ba ote dago?"



Jose Miguel Azkoitia Artetxe

2018ko otsailaren 6an hil zen, 57 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Miguel Azkoitia Artetxe

Zure bizipoza eta umorea gurekin izango dira beti.

Zure lagunak



Josemi Azkoitia Artetxe

- Goian bego -

*Zure irakaskide, ikasle eta lankideek.
Beti gogoan.*

Elgoibarren, 2018ko otsailaren 6an



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Juan Luis Ondarra Retolaza

2018ko otsailaren 4an hil zen, 54 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Josefa Unzueta Iriondo

"Pepita Moskote"

2018ko otsailaren 5ean hil zen, 95 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Patxi Larrañaga Zubizarreta

"Aldapa"

2017ko otsailaren 9an hil zen, 83 urte zituela

*Aldapa, zure etxe maitea
guretzako betirako oroitzapenez betea.*

Ez adiorik!

Etxekoak



INAUTERIAK 2018

otsailak 10, zapatua



18:00 ATXUTXIKARAOKEA, Maalako parkean

19:30 MOZORRO DESFILEA plazaraino Mausitxa Txarangarekin

20:45-22:00 KUADRILLEN JOLASAK txarangarekin, kalegoen plazan

00:30 FAN&GO erromeria Maalan



ELGOIBARRENA IZARRA
Euzko Legebiltzariaren Batzordea



ELGOIBARRENA UDALA

KULTURA
elgoibar
NAUTURA